



**BILBOKO INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO
UNIBERTSITATE ESKOLA**



GRADUA : MEKANIKA

GRADU AMAIERAKO LANA

2015 / 2016

220 TN-KO TOLESGAILU HIDRAULIKOA

3 . DOKUMENTUA : KALKULUAK

IKASLEAREN DATUAK

IZENA: MIKEL

ABIZENAK: GUTIERREZ MARTINEZ

SIN.:

DATA: 2016/02/12

ZUZENDARIAREN DATUAK

IZENA: J.A.

ABIZENAK: SANTOS PERA

SAILA: ADIERAZPEN GRAFIKOA ETA PROIEKTUAK
INGENIARITZAN

SIN.:

DATA: 2016/02/12

3. DOKUMENTUA: KALKULUAK

AURKIBIDEA

3.1	kalkuluak	4
3.1.1	kalkulu hidraulikoak	4
3.1.1.1	Pistoi eta kirtenaren sekzioen kalkuluak	4
3.1.1.2	Emarien kalkuluak	6
3.1.1.3	Ponpa eta motore elektrikoaren aukeraketa	9
3.1.1.4	Olio depositua eta osagai hidraulikoen aukeraketa	10
3.1.1.5	Instalazio hidraulikoaren hodian aukeraketa.....	11
3.1.1.5.1	Zilindro eta distribuzio blokearen arteko hodiak	11
3.1.1.5.2	Depositua eta ponparen arteko hodia	17
3.1.1.5.3	Ponpa eta distribuzio blokearen arteko dagoen hodia.....	18
3.1.2	Kalkulu mekanikoa	19
3.1.2.1	Zilindroaren kalkulu mekanikoa	19
3.1.2.1.1	Atorraren lodieraren kalkulua	20
3.1.2.1.2	Kirtenaren kalkulua	22
3.1.2.1.3	Pistoiaren kalkulua.....	28
3.1.2.1.4	Kirtenaren taparen kalkulua	31
3.1.2.1.5	Gidarien zabalaren kalkulua.....	35
3.1.2.1.6	Zilindroko behealdean kokaturiko tapa.....	35
3.1.2.1.7	Ardatzaren zorroaren kalkulua	37
3.1.2.1.8	Ardatzaren zorroaren taparen itxura taparen kalkulua	40
3.1.2.1.9	Puntzoi etxearen gidarien kalkulua	42
3.1.2.2	Puntzoi etxearen kalkuluak.....	43
3.1.2.3	Sinkronizazio sistemaren kalkulua.....	50
3.1.2.3.1	Ardatzaren pasadorearen kalkulua	51
3.1.2.3.2	Puntzoi etxeko ardatzaren berma puntuen kalkulua.....	51

3.1.2.3.3	Euskarriaren soldaduraren kalkulua	54
3.1.2.3.4	Bihurdura ardatzaren kalkulua	55
3.1.2.3.5	Bihurdura ardatza eta bere besoen arteko soldadura.....	58
3.1.2.3.6	Bihurdura barraren besoen kalkulua	60
3.1.2.4	Bastidorearen kalkulua	62
3.1.2.4.1	Faldoiaren kalkulua.....	62
3.1.2.4.2	Hegoen kalkuluak	67
3.1.2.4.3	Zilindroa eta bastidorearen arteko lotura	70
3.1.2.4.4	Gordailuaren bermaketa habeen kalkulua.....	74
3.1.2.5	Barneko tope sistemaren kalkulua.....	76
3.1.2.5.1	Barne topearen kalkulua	76
3.1.2.5.2	Torloju amaigabea eta koroaren kalkulua	79
3.1.2.5.3	Torloju amaigabearen dimentsioak	81
3.1.2.5.4	Koroaren neurriak	81
3.1.2.5.5	Koroa eta torloju amaigabeen hortzetako indarrak	82
3.1.2.5.6	Comprobación del módulo de los dientes	84
3.1.2.5.7	Motorea eta akoplamenduaren aukeraketa.....	85
3.1.2.5.8	Transmizio ardatzaren kalkulua	89
3.1.2.5.9	Torlojuentzako errodamenduen aukera.....	91
3.1.2.5.10	Ardatz nagusiaren kalkulua.....	94
3.1.2.5.11	Ardatz nagusiko errodamenduaren aukeraketa.....	97
3.1.2.5.12	Torloju amaigabearen eta transmisio ardatzaren lotura zorroaren kalkulua	98
3.1.2.5.13	Txabeten kalkulua.....	100
3.2	Taula eta grafikoak.....	106

3.1 KALKULUAK

3.1.1 kalkulu hidraulikoak

3.1.1.1 Pistoia eta kirtenaren sekzioen kalkuluak

Zilindro oleohidraulikoak energia hidraulikoa lan mekanikoan bihurtzen dute. Balore hau jariakinaren presioa eta pistoiaren sekzioaren zuzenean proportzionala da. Zilindroa sekzio zirkularra duen enbolo batez eta atorraren barnean mugitzen den kirten batez osaturik dago. Kirtenak bi mugimendu egingo ditu: aurreratze eta atzera.

220tn-ko tolesgailu hidrauliko baterako bi zilindro oleohidrauliko erabiliko ditugu, bakoitza 110tn-ko indarrekoa. Kontuan eduki behar da atorra eta pistoiaren arteko marruskaduragatik hauen diametroak ezberdinak izango direla. Pistoiaren diametroa kalkulatzeko Carnicer Royo-ren "Oleohidráulica, Conceptos Básicos" liburua erabiliko da. Honekin nahi den zerbitzua egiteko behar den diren diametroak lortuko dira. Lortu nahi den helburua presio maximoa kalkulatzeko da eta horretarako zilindro bakoitzaren azalera osoa kalkulatzeko hasi behar da.

$$A_{T1} = \frac{\pi \times d_1^2}{4} \text{ (cm}^2\text{)}$$

Non:

A_{T1} : Zilindro bakoitzaren azalera osoa [cm²].

d_1 : Pistoiaren diametroa [cm].

Diametroa aukeratzeko orduan GLUAL enpresako KP katalogotik 220mm-koa diametroa aukeratu da. Honen aukeraketa egiterako orduan junta komertzialak eduki behar dira kontuan.

Ondorioz:

$$A_{T1} = \frac{\pi \times 22^2}{4} = 380.13 \text{ cm}^2$$

Zilindroen azalera hurrengoa izango da:

$$A_T = 2 \times A_{T1} = 760.26 \text{ cm}^2$$

Presioa, indarra azalera erlazionatzen duen formula erabilia beharrezko lan presioa lortuko da:

$$F = p \times A$$

Non:

F: Lan indarra = 220 t = 2158200 N.

p: Lan presio maximoa [Pa].

A_T : Zilindro bien azalera totala [m²].

Formula aplikatuz:

$$p = 21582000 \text{ N} / 0.076026 \text{ m}^2 = 28.39 \text{ MPa} = 283.9 \text{ bar.}$$

Normalean zilindroetan etekina 85-95%-artekoa da. Egin diren kalkuluetan ez da kontutan eduki marruskadura horregatik ezinezkoa da etekina 100%, horregatik presioa 350 bar-etara handituko da.

Itzulerako mugimendurako beharrezkoa den zilindroaren sekzio anularra zein den jakitea eta horretarako kirtenaren azalera eta honen diametroa, d_2 jakin behar da. Hau aukeratzeko orduan elementu komertzialak eduki behar dira kontuan. GLUAL enpresako KP katalogoa jarraituz, $d_2=160\text{mm}$ lortuko da.

Bestalde, Rifa Molist,J-ren libro "Cilindros Hidráulicos. 2-Materiales" liburuak gomendatzen du zilindroaren azalera totala eta honen azalera anularra ezin da 10 baino handiago izan.

Behin kirtenaren diametroa 160mm dela jakinda, honen azalera anularra atera daiteke:

$$A_{a1} = A_{T1} - \frac{\pi \times d_2^2}{4}$$

Non:

A_{a1} ; Zilindro bakoitzaren azalera anularra [cm²].

d_2 ; Kirtenaren diametroa (barne diametroaren sekzio anularra) [cm]. = 16 cm.

A_{T1} : Zilindroaren azalera totala. $[cm^2]$. = 380.13 cm^2 .

$$A_{a1} = 380.13 - \frac{\pi \times 16^2}{4} = 179.07 cm^2$$

Zilindro biak edukiko duten azalera anularra, $A_a = 2 \times A_{a1} = 358.14 cm^2$

Azalera totala eta anularraren arteko erlazioa hurrengoa izango da:

$$R = \frac{A_T}{A_a}$$

$A_T = 760.26 cm^2$ eta $A_a = 358.14 cm^2$

$$R = \frac{760.26}{358.14} = 2.12 < 10, \text{ Kirtenaren diametroa onargarria izango da.}$$

Lortutako emaitzak hurrengoak izango dira:

$F_{TOTALA} = 220 t$

$P = 350 bar$

$d_1 = 220 mm$

$A_T = 760.26 cm^2$

$d_2 = 160 mm$

$A_a = 358.14 cm^2$

$R = 2.12$

3.1.1.2 Emarien kalkuluak

Beharrezkoa den emari maximoa zein den jakiteko hauen lan abiadura jakin beharko da. Bai hurbilketa abiadura bai itzulera abiadura handiak izan beharko dira zikloan denborarik ez galtzeko. Bestalde, lan abiadura txikiagoa izan beharko da, lana modu on eta zuzen baten egiten duela ziurtatu behar baita.

Faktore hauek kontutan izanda, abiadurak hurrengoak izango dira:

Hurbilketa abiadura: 90 mm/s.

Lan abiadura (Tolestea): 10 mm/s.

Itzulpen abiadura: 130 mm/s.

Diseinuaren datuak:

$$\text{Azalera totala: } A_T = 760.26 \text{ cm}^2.$$

$$\text{Zilindroaren ibiltartea: } L = 250 \text{ mm.}$$

$$\text{Sekzio anularra: } A_a = 358.14 \text{ cm}^2.$$

Lan abiadura ezberdinak eta bolumen aldaketak egongo direnez, emari bat baino gehiago egongo dira. Lehenik eta behin lan abiadurarako emariak kalkulatu da, prozesuko garrantzitsuena baita, ondoren beste emariak. Emarien kalkuluetarako Carnicer Royo, E-ren "Oleohidráulica. Conceptos básicos" liburua erabiliko da

Tolestea prozesua:

10mm/s-tako abiadurako emaria lortzeko hurrengo adierazpena erabiliko da:

$$Q_{\text{tolestea}} = A_T \times v_{\text{tolestea}} \text{ (cm}^3\text{/s)}$$

Non:

$$Q_{\text{tolestea}} : \text{ beharrezko lan elikaduraren emaria [cm}^3\text{/s].}$$

$$A_T : \text{ Azalera totala. [cm}^2\text{].}$$

$$v_{\text{tolestea}} : \text{ Lan abiadura. [cm/s].}$$

Hurrengo moduan geratuko da:

$$Q_{\text{tolestea}} = 760.26 \times 1 = 760.26 \text{ cm}^3 / \text{s} = 45615.6 \text{ cm}^3\text{/min} = 45.6 \text{ l/min.}$$

Kalkuluak sinplifikatzeko eta arreta moduz, 50 l/min-ko emaria hartuko da. Honekin 45.6 L/min-ko emaria ziurtatuko da.

Hurbilketa prozesua:

Hurrenez, hurbilketa prozesurako beharrezko emaria kalkulatu da.

90mm/s-tako abiadurako emaria lortzeko hurrengo adierazpena erabiliko da:

$$Q_{\text{tolestea}} = A_T \times v_{\text{tolestea}} \text{ (cm}^3\text{/s)}$$

Non:

$$Q_{\text{tolestea}} : \text{ beharrezko lan elikaduraren emaria [cm}^3\text{/s].}$$

A_T : Azalera totala. [cm^2].

$V_{\text{Hurbilketa}}$: Hurbilketa abiadura. [cm/s].

Hurrengo moduan geratuko da:

$$Q_{\text{Hurbilketa}} = 760.26 \times 9 = 6842.34 \text{ cm}^3 / \text{s} = 410540.4 \text{ cm}^3 / \text{min} = 410.5 \text{ l/min.}$$

Kalkuluak sinplifikatzeko eta arreta moduz, 420 l/min-ko emaria hartuko da. Honekin 410.5 L/min-ko emaria ziurtatuko da.

Prozesu honetan lan prozesurako baino emari handiagoa erabiliko da. Erabiliko den ponpa emari honetara heltzeko, emari balbula erregulatzailea erabili beharko da. Balbula hau zilindroak behar duen emaria lortzea ahalbidetuko du.

Itzulera prozesua:

Atal honetan itzulera prozesurako beharrezko emaria kalkulatu da.

Zilindroa efektu bikoitzekoa denez, kalkuluetarako erabiliko dugun azalera, azalera anularra izango da.

130mm/s-tako abiadurako emaria lortzeko hurrengo adierazpena erabiliko da:

$$Q_{\text{tolestea}} = A_T \times V_{\text{tolestea}} \text{ (cm}^3/\text{s)}$$

Non:

Q_{tolestea} : beharrezko lan elikaduraren emaria [cm^3/s].

A_T : Azalera totala. [cm^2].

V_{itzulera} : Itzulera abiadura. [cm/s].

Hurrengo moduan geratuko da:

$$Q_{\text{itzulera}} = 760.26 \times 13 = 4655.82 \text{ cm}^3 / \text{s} = 279349.2 \text{ cm}^3 / \text{min} = 279.35 \text{ l/min.}$$

Kalkuluak sinplifikatzeko eta arreta moduz, 300 l/min-ko emaria hartuko da. Honekin 279.35 L/min-ko emaria ziurtatuko da.

Prozesu honetan hurbilketa prozesuan bezala erregulatzaile balbulak erabili beharko dira makinak uneoro beharrezko emariarekin lan egin dezan.

3.1.1.3 Ponpa eta motore elektrikoaren aukeraketa

Prozesuan erabiliko den emaria ($Q = 50 \text{ l/min}$) eta presioa ($p = 350 \text{ bar}$) jakinda, gure beharretara hobeto egokitzen den ponpa aukeratu behar da. Beste bi lan faseetarako (hurbilketa eta itzulera) beharrezkoa den emaria lortzeko serbobalbulen bitartez eta elementu mugikorrez lortuko da.

Aukeratu behar den ponpa, zilindroen lan presioa gainditu dezakeena izan behar da, zilindroen karga galera posibleak kontutan eduki behar bait dira.

Pistoi axialak fabrikatzen duten enpresen katalogoak begiratzuz, F11-PV-19 GLUAL etxeko ponpa aukeratu da. Ponpa honek 66.5 l/min -ko emaria lortzeko gai da 350bar -eko presioarekin (presio maximoa 420bar izanda) eta 3500bira/min lan abiadura maximoa.

Erabiliko dugun motore elektrikoa aukeratu aurretik ponparen potentzia elektrikoa kalkulatu behar da, horretarako Ecenarro Ortiz de Zarate, M-ren "Componentes y aplicaciones oleohidráulicas" liburua erabiliko da gida moduan. Potentzia lortzeko hurrengo formula erabiliko da:

$$P_m = \frac{Q \times p}{612 \times \eta_T}$$

Non:

P_m : Ponpak behar duen Potentzia [kW].

Q : Ponparen emaria [l/s].

p : Ponparen lan presioa [bar].

η_T : Ponparen errendimendu total.

Kasu honetarako ponparen errendimendua totala $\eta_T = 0.85$ izango dela suposatuko da.

Formula modu honetan geratuko da:

$$P_m = \frac{66.5 \times 350}{612 \times 0.85} = 46.38 \text{ kW}$$

Kontutan izan da motorraren funtzionamendua jarraitua ez dela izango, beraz ponpa martxan jartzeko beharrezkoa den potentzia baino altuagoa ematen duen motorra aukeratu behar da. Gure kasuan ABB etxeko M2AA 250M motorra aukeratu da. Motore honek 55 kW-eko potentzia sortzen du 2960 bira/min-ko abiadurarekin eta % 93.5-eko errendimendu totalaz.

$$P_{\text{erreala}} = P_{\text{teorikoa}} \times \eta_T = 55 \times 0.935 = 51.425 \text{ kW}$$

Nola $P_{\text{erreala}} > P_m$, motorraren potentzia onargarria izango da.

Bestalde, motorrak ematen duen potentziarekin, ponpak ez da inoiz bere maximora helduko, $P_m = 46.38 \text{ kW}$ emango da ponpak 350 bar-etara lan egiten duenean eta ponparen presio maximo 420 bar-ekoa da. Esan dezakegu ponpa gain dimentsionatuta dagoela.

3.1.1.4 Olio depositua eta osagai hidraulikoen aukeraketa

Olio depositua dimentsionatzen da hurrengo faktoreak kontutan izanda, jariakina bere barnean nahiko denbora egoteko eta denbora horretan beharrezko tratamenduak jasan dezan, hala nola iragaztea, hoztea, etab. Horregatik, Carnicer Royo, E-ren E "Oleohidráulica. Conceptos básicos." liburuan esaten den bezala, aplikazio arruntenetan, deposituaren tamaina ponparen emariaren araberakoa izango da, emaria baino 3-4 aldiz handiagoa. Prebentzio modura kasu honetarako emaria baino 4 aldiz handiagoa egingo da, hurrengoa lortuko da:

$$V_{\text{media}} = 4 \times Q_{\text{ponpa}} = 4 \times 66.5 = 266 \text{ l}$$

Honetaz gain, kontutan eduki behar da %10-eko airezko kuxin bat uztea olioaren dilatazio termikoa konpentsatzeko eta ur eta kutsatzaile kantitate bat pilatzeko. Honela geratuko da:

$$V_{\text{depositua}} = V_{\text{media}} + 10 \% = 266 + 26 = 292 \text{ l}$$

Faktore hauek kontuan edukita, ROGIMAR etxeko CCO350 depositua aukeratu da. Depositu honen edukiera 350 litrokoa izango da.

Aukeratu den olia PARKER etxeko H00361-004 izango da..

3.1.1.5 Instalazio hidraulikoaren hodian aukeraketa

3.1.1.5.1 Zilindro eta distribuzio blokearen arteko hodiak

Lehenik eta behin sarrera eta irteera hodian diametroa kalkulatzeko izango da zirkuituan zehar agertzen diren abiadura guztiekin. Efektu bikoitzeko zilindroak direnez, bi zirkuitu desberdin edukiko ditugu, bata sarrerarako eta bestea irteerarako.

Diametroak Ecerrano Ortiz de Zarate, M-ren “Componentes y aplicaciones oleohidráulicas” liburuaren arabera kalkulatu dira. Hodian aukeraketarako katalogo komertzialak erabiliko dira.

ZILINDROAREN JEITSIERA HURBILKETA ABIADURAREKIN:

- *Kirtenaren kontrako aldetik sartzen den hodia zilindroa hurbilketa abiadurarekin jaisteko.*

McGraw-Hill etxeko “Oleohidráulica” liburuaren arabera, gomendatzen da olio abiadura 6 m/s izatea.

Bi zilindro direnez, emaria bitan zatitu beharko da, hurrengoa lortuz:

$$Q = Q_{\text{hurbilketa}} / 2 = 420 / 2 = 210 \text{ l/min} = 3500 \text{ cm}^3/\text{s}$$

Hodiaren diametroa lortzeko hurrengo adierazpena erabili behar da:

$$Q = S \times v$$

Non:

S = Hodiaren sekzioa cm^2 -tan.

Q = zilindroaren emaria hurbilketa prozesuan: $3500 \text{ cm}^3/\text{s}$.

v = Olioaren abiadura cm/s -tan = 600 cm/s .

Sekzioa hurrengoa izango da:

$$S = 3500 / 600 = 5.83 \text{ cm}^2$$

Horrela:

$$S = \frac{\pi \times d^2}{4} \Rightarrow d = 2.72 \text{ cm} = 27.2 \text{ mm}$$

- Kirtenaren aldetik irteten den hodia behin zilindroa hurbilketa abiadurarekin jaitsi egin den.

Olioia zilindroaren goiko aldetik sartuko da kirtena jetziaraziz, honek kirtenean dagoen olioia kanporatuko da. Fase honetan hoditik irtengo den olioaren emaria jakin behar da. Honetarako hurbilketa abiadura kontutan izan behar da, gure kasuan 90mm/s. Zilindrotik hurbilketa prozesuan irtengo den emaria hurrengoa izango da:

$$Q = Aa \times v = 358.14 \times 9 = 3223.26 \text{ cm}^3/\text{s} = 193.4 \text{ l/min}$$

Bi zilindro direnez:

$$Q_{\text{zilindro}} = Q / 2 = 3223.26 / 2 = 1611.63 \text{ cm}^3/\text{s} = 96.7 \text{ l/min}$$

Hodiaren diametroa zein den jakiteko, lehenbizi honen sekzioa jakin behar da:

$$Q = S \times v$$

Non:

S = Hodiaren sekzioa cm^2 -tan.

Q = zilindroak kanporatzen duen emaria hurbilketa prozesuan:
1611.63 cm^3/s .

v = Olioaren abiadura cm/s -tan = 600 cm/s .

$$S = Q / v = 1611.63 / 600 = 2.68 \text{ cm}^2$$

Horrela:

$$S = \frac{\pi \times d^2}{4} \Rightarrow d = 1.85 \text{ cm} = 18.5 \text{ mm}$$

ZILINDROAREN JEIRSIERA LAN ABIADURAREKIN (TOLESKETA):

- *Kirtenaren kontrako aldetik sartzen den hodia zilindroa lan abiadurarekin jaisteko.*

McGraw-Hill etxeko "Oleohidráulica" liburuan azaltzen duen moduan, olioaren abiadura 6 m/s-koa izango da.

Bi zilindro direnez, emaria bien artean banatuko da:

$$Q = Q_{\text{tolestea}} / 2 = 50 / 2 = 25 \text{ l/min} = 416.67 \text{ cm}^3/\text{s}$$

Hodiaren diametroa zein den jakiteko, lehenbizi honen sekzioa jakin behar da:

$$Q = S \times v$$

Non:

S = Hodiaren sekzioa cm²-tan.

Q = tolestea prozesuan zilindro jasotzen duen emaria tolestea prozesuan: 416.67 cm³/s.

v = Olioaren abiadura cm/s-tan = 600 cm/s.

$$S = Q / v = 416.67 / 600 = 0.69445 \text{ cm}^2$$

Diametroa hurrengo izango da:

$$S = \frac{\pi \times d^2}{4} \Rightarrow d = 0.94 \text{ cm} = 9.4 \text{ mm}$$

- *Kirtenaren aldetik irteten den hodia behin zilindroa lan abiadurarekin jaitsi egin den.*

Olioia zilindroaren goiko aldetik sartuko da kirtena jetziaraziz, honek kirtenean dagoen olioia kanporatuko da. Fase honetan hodontik irtengo den olioren emaria jakin behar da. Honetarako lan abiadura kontutan izan behar da, gure kasuan 10mm/s. Zilindrotik tolestea prozesuan irtengo den emaria hurrengo izango da:

$$Q = Aa \times v_{\text{tolestea}} = 358.14 \times 1 = 358.14 \text{ cm}^3/\text{s} = 21.5 \text{ l/min}$$

Bi zilindro direnez:

$$Q_{zilindro} = Q / 2 = 358.14 / 2 = 179.07 \text{ cm}^3/\text{s} = 10.75 \text{ l/min}$$

Hodiaren diametroa zein den jakiteko, lehenbizi honen sekzioa jakin behar da:

$$Q = S \times v$$

Non:

S = Hodiaren sekzioa cm^2 -tan.

Q = tolestea prozesuan zilindro bakoitza kanporatzen duen emaria:
179.07 cm^3/s .

v = Olioaren abiadura cm/s -tan = 600 cm/s .

$$S = Q / v = 179.07 / 600 = 0.3 \text{ cm}^2$$

Horrela:

$$S = \frac{\pi \times d^2}{4} \Rightarrow d = 0.6 \text{ cm} = 6 \text{ mm}$$

ZILINDROAREN IGOERA ITZULERA ABIADURAREKIN:

Kasu honetan zilindroak olio behealdetik jasoko tu eta honek zilindroaren goialdean dagoen olio kanporatuko da.

- *Kirtenaren aldetik sartzen den hodia zilindroa itzulera abiadurarekin igo egingo denean.*

Hodi honek aurrekoak baino presio gutxiago jasango du, bere lana puntzoi etxea igotzea baita. McGraw-Hill etxeko liburuan azaltzen den bezala, 0.25 bar-eko presiorako olio abiadura maximoa 3.5m/s-koa izango da. Bi zilindro direnez, emaria totala bien artean banatuko da.

$$Q = itzulera / 2 = 300 / 2 = 150 \text{ l/min} = 2500 \text{ cm}^3/\text{s}$$

Hodiaren diametroa zein den jakiteko, lehenbizi honen sekzioa jakin behar da:

$$Q = S \times v$$

Non:

$S = \text{Hodiaren sekzioa cm}^2\text{-tan.}$

$Q = \text{Itzulera prozesuan zilindro bakoitza jasotzen duen emaria: } 2500 \text{ cm}^3/\text{s.}$

$v = \text{Olioaren abiadura cm/s-tan} = 600 \text{ cm/s.}$

$$S = Q / v = 2500 / 350 = 7.14 \text{ cm}^2$$

Horrela:

$$S = \frac{\pi \times d^2}{4} \Rightarrow d = 3 \text{ cm} = 30 \text{ mm}$$

-Kirtenaren kontrako aldetik irtengo den olio hodia zilindroa itzulera abiadurarekin igotzeko.

Zilindroa olio behaldek jasoko du eta kirtena gora egitea eragingo du, modu honetan zilindroan kirtenaren kontrako aldean dagoen olio kanporatuko du.

Fase honetan hoditik irtengo den olioaren emaria jakin behar da. Honetarako itzulera abiadura kontutan izan behar da, gure kasuan 130 mm/s. Zilindrotik itzulera prozesuan irtengo den emaria hurrengoa izango da:

$$Q = A_T \times v_{itzulera} = 760.26 \times 13 = 9883.38 \text{ cm}^3/\text{s} = 593 \text{ l/min}$$

Bi zilindro direnez:

$$Q_{zilindroa} = Q / 2 = 9883.38 / 2 = 4941.69 \text{ cm}^3/\text{s} = 296.5 \text{ l/min}$$

Hodiaren diametroa zein den jakiteko, lehenbizi honen sekzioa jakin behar da:

$$Q = S \times v$$

Non:

$S = \text{Hodiaren sekzioa cm}^2\text{-tan.}$

$Q = \text{Itzulera prozesuan zilindro bakoitza kanporatzen duen emaria: } 2500 \text{ cm}^3/\text{s.}$

$v = \text{Olioaren abiadura cm/s-tan} = 600 \text{ cm/s.}$

$$S = Q / v = 4941.69 / 350 = 14.12 \text{ cm}^2$$

Horrela:

$$S = \frac{\pi \times d^2}{4} \Rightarrow d = 4.24 \text{ cm} = 42.4 \text{ mm}$$

Behin diametro guztien kalkulua eginda goiko hodiaren gutxienezko diametroa 42.4 mm eta beheko hodiaren gutxienezko diametroa 30 mm izan behar dela frogatzen da. Beharrezko hodiak DIN 2391/C norma jarraituz aukeratu dira. Hodiak aukeratzeko kontutan izango da ariete kolpea agertu daitekeela, eta agertzekotan apurketak ekiditeko komenigarria den baino hodi handiagoa hartuko da.

Aukeratutako metala katalogo komertzial batetik egingo da eta hurrengoa izango da:

- Goiko hodia: DIN 2391-C
- Barne diametroa = 60 mm.
- Kanpo diametroa = 80 mm.
- Presioa = 353 bar.
- Behealdeko hodia: DIN 2391-C
- Barne diametroa = 32 mm.
- Kanpo diametroa = 50 mm.
- Presioa = 437 bar.

goiko hodia



3.1 Irudia

Kontutan izan behar da hodian luzerak handiak ez direla eta kasu honetan hodiak olioaren bitartez indarra transmititzeko erabiltzen direla eta ez olioaren lekua bestera garraiatzeko. Beraz, agertuko diren karga galerak oso txikiak izango direnez, hauen balioen kalkulua ez egitea kontsideratu da.

Olioaren distribuziorako Bosch Rexort enpresako distribuzio blokea erabiliko da. Bertan zilindroetatik eta depositutik atera edo sartzen diren hodiak lotuko dira errakorren bitartez. Hau altzairuzko bloke konpaktu batez osatuta dago eta honen funtzioa prozesu bakoitzerako behar den emaria elementu hargailuetara banatzea da. Ondoren botoi batzuk sakatuz prentsa igotzea edo jaistea lortuko da beharrezko abiadurarekin. Erositako banaketa blokeak segurtasun balbulak edukiko ditu presioa gehiegi handitzekotan zirkuitua irekitzeko eta olio osoa berriro ere gordailura itzultzeko apurketa arriskua egon ez dadin.

3.1.1.5.2 Depositua eta ponparen arteko hodia

Kasu honetan xurgapen tartean egongo gara. Honek esan nahi du puntu honetan egongo den presioa ez dela oso altua izango eta McGraw-Hill-ren "Oleohidráulica" liburuaren arabera, kasu hauetan olioaren abiadura 1.5m/s-koa izatea gomendatzen da. Emaria 50 l/min dela jakina (tolestea prozesuan erabilitako emaria) hodiaren diametroa kalkulatu da.

$$Q = 50 \text{ l/min} = 833.33 \text{ cm}^3/\text{s}$$

$$Q = S \times v$$

Non:

S = Hodiaren sekzioa cm^2 -tan.

Q = tolestea prozesuan hodi bakoitza kanporatzen duen emaria cm^3/s -tan = $833.33 \text{ cm}^3/\text{s}$.

v = Olioaren abiadura cm/s -tan = 150 cm/s .

$$S = Q / v = 833.33 / 150 = 5.55 \text{ cm}^2$$

Diametroa hurrengoa izango da:

$$S = \frac{\pi \times d^2}{4} \Rightarrow d = 2.66 \text{ cm} = 26.6 \text{ mm}$$

Behin hainbat katalogo komertzial aztertu ondoren, METAL etxekotik hurrengoa aukeratu egin da:

- Mota: R 4447400
- Kanpo diametroa = 49.6 mm.
- Barne diametroa = 38.1mm.
- Presioa = 40 bar

Diametro berdina edukiko du distribuzio bloketik depositura joango den hodia.

3.1.1.5.3 Ponpa eta distribuzio blokearen arteko dagoen hodia

Aztertuko den hodia presio hodi bat izango da, ponpatik irtengo dena baita. Hoditik pasako den emaria ponpan sartuko den berdina izango da, hau da, 50 l/min eta funtzionamendu presioa 350bar-ekoa. Hoditik pasako den olioaren abiadura aurreko kasuarena baino altuagoa izan daiteke ponpari ez diolako kalterik egingo. Horregatik, McGraw-Hill-en "Oleohidráulica" liburuan oinarrituta 6 m/s-ko abiadura hartuko da. Datu hauekin Ecenarro Ortiz de Zárate-ren "Componentes y aplicaciones oleohidráulicas" liburuarekin hodiaren diametroa eta honen sekzioa kalkulatu da.

$$Q = S \times v$$

Non:

$$S = \text{Hodiaren sekzioa cm}^2\text{-tan.}$$

$$Q = \text{tolestea prozesuan hodi bakoitza kanporatzen duen emaria cm}^3\text{/s-tan} = 833.33 \text{ cm}^3\text{/s.}$$

$$v = \text{Olioaren emaria cm/s-tan} = 600 \text{ cm/s.}$$

$$S = Q / v = 833.33 / 600 = 1.389 \text{ cm}^2$$

Diametroa hurrengoa izango da:

$$S = \frac{\pi \times d^2}{4} \Rightarrow d = 1.33 \text{ cm} = 13.3 \text{ mm}$$

Behin hainbat katalogo komertzial aztertu ondoren, METAL etxekotik hurrengoa aukeratu egin da:

- Mota: R 4430160
- Kanpo diametroa = 28.5 mm.
- Barne diametroa = 16mm.
- Presioa = 350 bar.

3.1.2 Kalkulu mekanikoa

3.1.2.1 Zilindroaren kalkulu mekanikoa

Atal honetan zilindroaren atal desberdinen kalkulua eta diseinua egingo da. Honetarako kirtenaren materiala eta honen ezaugarriak eta zilindroaren atorra kalkulatzeko hasiko da.

Atorraren materiala: DIN ST-52

Ezaugarri mekanikoak:

Apurketa tentsioa: $\sigma_R = 5600 \text{ kg/cm}^2$

Fluentzi tentsioa: $\sigma_{flu} = 4500 \text{ kg/cm}^2$

Brinell gogortasuna: HB = 145

Kirtenaren ezaugarriak: DIN 34CrMo4

Ezaugarri mekanikoak:

Apurketa tentsioa: $\sigma_R = 9000 \text{ kg/cm}^2$

Fluentzi tentsioa: $\sigma_{flu} = 7300 \text{ kg/cm}^2$

Brinell gogortasuna: HB = 47-56

3.1.2.1.1 Atorraren lodieraren kalkulua

Nahiz eta zilindroaren kanpoaldea karratua izan, atorra zilindroetarako erabiltzen diren formulak erabiliko dira. Atorraren behealdea zilindrikoa izan behar da zilindroaren atal ezberdinak sartu ahal izateko. Honetarako, Rifa Molist, J-ren "Cilindros hidráulicos. 2-Materiales" erabiliko da. Liburuan gomendatzen den moduan, Lamer-en formula erabiliko da.

$$\sigma_{\max, \text{onargarra}} = P \times (D^2 + d^2 / D^2 - d^2)$$

Non:

$\sigma_{\max, \text{onargarra}}$ = Atorraren materialaren lan tentsio maximoa kg/cm²-tan.

P = Zilindroaren barne presioa bar-etan = 350 bar.

D = Atorraren kanpo diametroa mm-tan.

d = Atorraren barne diametroa mm-tan = 220 mm.

Tentsio onargarri maximoa lortzeko segurtasun koefiziente bat beharko da, kasu honetan 4 izango da.

$$\sigma_{\max, \text{onargarra}} = \sigma_{\text{flu}} / 4 = 4500 / 4 = 1125 \text{ kg/cm}^2$$

Lamer-en formularen datuak ordezkatzuz:


$$1125 = 350 \times \frac{D^2 + 220^2}{D^2 - 220^2} \Rightarrow D_{\min} = 303.5 \text{ mm} \approx 304 \text{ mm}$$

Orain atorraren lodiera minimoa kalkulatu da:

$$e = \frac{D - d}{2} = \frac{304 - 220}{2} = 42 \text{ mm}$$


Behin atorraren lodiera kalkulatu, tentsioak onargarriak direla egiaztatu behar da, era berean makina lanean dagoenean apurketarik ez dela egongo. Horretarako Timoshenko, S-ren "Mecanica de materiales" liburua erabiliko da erreferentzi moduan. Atorraren kalkulua egoera triaxial batean egongo den horma mehe bat bezala egingo da.

$$\sigma_1 = \frac{P \times r}{e}$$




3.2 Irudia

$$\sigma_2 = \frac{P \times r}{2 \times e}$$



3.3 Irudia

$$\sigma_3 = -P$$



3.4 Irudia

Non:

σ_1 = Atorraren tentsio ukitzailea N/m^2 -tan.

σ_2 = Atorraren tentsio axiala N/m^2 -tan.

σ_3 = Atorraren tentsio erradiala (presioagatik) N/m^2 -tan.

P = Barne tentsioa N/m^2 -tan = $35000000 N/m^2$.

r = Atorraren barne erradioa m-tan = $0.11 m$.

e = Atorra lodieraren gutxieneko lodiera m-tan = $0.042 m$.

formulak hurrengo moduan geratuko dira:

$$\sigma_1 = \frac{350 \times 10^5 \times 0.11}{0.042} = 91.666 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\sigma_2 = \frac{350 \times 10^5 \times 0.11}{2 \times 0.042} = 45.833 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\sigma_3 = -350 \times 10^5 \text{ N/m}^2 = -35 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

Tentsio ebakitzaille maximoak:

$$\tau_{\max(1,3)} = \frac{\sigma_1 - \sigma_3}{2} = \frac{91.666 \times 10^6 - (-35 \times 10^6)}{2} = 63.333 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\tau_{\max(2,3)} = \frac{\sigma_2 - \sigma_3}{2} = \frac{45.833 \times 10^6 - (-35 \times 10^6)}{2} = 40.416 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\tau_{\max(1,2)} = \frac{\sigma_1 - \sigma_2}{2} = \frac{91.666 \times 10^6 - 45.833 \times 10^6}{2} = 22.916 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

Esfortzu estatiko onargarriak zeintzuk diren jakiteko Von Mises-Hencky erabiliko da:

$$\sigma_{M-H} = \sqrt{\frac{(\sigma_1 - \sigma_3)^2 + (\sigma_2 - \sigma_3)^2 + (\sigma_1 - \sigma_2)^2}{2}}$$

Balioak ordezkatzuz:

$$\sigma_{M-H} = \sqrt{\frac{(91.666 \times 10^6 - (-35 \times 10^6))^2 + (45.833 \times 10^6 - (-35 \times 10^6))^2 + (91.666 \times 10^6 - 45.833 \times 10^6)^2}{2}}$$

$$\sigma_{M-H} = 110.98 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\sigma_{M-H} = \sigma_{\text{flu}} / \text{C.S.} \rightarrow \text{C.S.} = \sigma_{\text{flu}} / \sigma_{M-H} = 4500 \times 9.81 \times 10^4 / 110.98 \times 10^6 = 4$$

Kalkulatoriko segurtasun koefizientea aurrekoaren berdina denez, atorraren lodiera $e = 42\text{mm}$ -koa izango da.

3.1.2.1.2 Kirtenaren kalkulua

Kirtenaren lodiera kalkulatzeko atorraren kalkulurako erabili diren formula berdinak erabiliko dira.

$$\sigma_{\max., \text{onargarria}} = P \times (D^2 + d^2 / D^2 - d^2)$$

Non:

$\sigma_{\max., \text{onargarria}}$ = kirtenaren materialaren lan tentsio maximoa kg/cm^2 -tan.

P = Zilindroaren barne tentsioa bar-etan = 350 bar.

D = Kirtenaren kanpo diametroa mm-tan = 160 mm.

d = Kirtenaren barne diametroa mm-tan.

Tentsio onargarri maximoa lortzeko segurtasun koefiziente bat beharko da, zein 4 izango den.

$$\sigma_{\max., \text{onargarra}} = \sigma_{\text{flu}} / C.S. = 7300 / 4 = 1825 \text{ kg/cm}^2$$

Datuak Lamé-ren formularen ordezkatuz:

$$1825 = 350 \times \frac{160^2 + d^2}{160^2 - d^2} \rightarrow d_{\min} = 132 \text{ mm}$$

Kirtenaren lodiera hurrengo izango da:

$$e = \frac{D - d}{2} = \frac{160 - 132}{2} = 14 \text{ mm}$$

Rifa Molist, J-ren "Cilindros Hidráulicos. 2-Materiales" liburuan agertzen diren aholkuak jarraituz, kanpo diametroa eta lodieraren arteko erlazio zuzena izatea egiaztatu behar da, horretarako hurrengo adierazpenak erabiliko dira:

Horma mehea: $D \geq 16 \times e \rightarrow$ "Barlow"-ren adierazpena.

Horma lodia: $D \leq 16 \times e \rightarrow$ "Lamé"-ren adierazpena.

Egiaztatuz:

$D = 16 \times e \Rightarrow 160 \leq 16 \times 14 \Rightarrow 160 \leq 224$, ikus daiteke kirtena hormaren lodieraren kalkulua Lamé-ren formularekin ondo kalkulatu dagoela.

Kirtenaren diametroak kalkulatu, pieza tentsioak jasateko gai den ikusi behar da. Honetarako aurretik zilindroaren atorraren erabili diren formula berdinak erabiliko dira eta Von Mises-Hensky-n oinarrituko dira.

$$\sigma_1 = \frac{P \times r}{e} \qquad \sigma_2 = \frac{P \times r}{2 \times e} \qquad \sigma_3 = -P$$

Non:

σ_1 = Kirtenaren tentsio ukitzailea N/m^2 -tan.

σ_2 = Kirtenaren tentsio axiala N/m^2 -tan.

σ_3 = Kirtenaren tentsio erradiala (presioagatik) N/m^2 -tan.

P = Barne presioa N/m^2 -tan = 35000000 N/m^2 .

r = Kirtenaren barne diametroa m-tan = $132 / 2 = 66 \text{ mm} = 0.066 \text{ m}$.

e = Kirtenaren lodiera m-tan = 0.014 m .

Datuak ordezkatzuz:

$$\sigma_1 = \frac{350 \times 10^5 \times 0.066}{0.014} = 165 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\sigma_2 = \frac{350 \times 10^5 \times 0.066}{2 \times 0.014} = 82.5 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\sigma_3 = -35 \times 10^5 \text{ N/m}^2 = -35 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

Tentsio ebakitzailerik maximoak:

$$\tau_{\max(1,3)} = \frac{\sigma_1 - \sigma_3}{2} = \frac{165 \times 10^6 - (-35 \times 10^6)}{2} = 100 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\tau_{\max(2,3)} = \frac{\sigma_2 - \sigma_3}{2} = \frac{82.5 \times 10^6 - (-35 \times 10^6)}{2} = 58.75 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\tau_{\max(1,2)} = \frac{\sigma_1 - \sigma_2}{2} = \frac{165 \times 10^6 - 82.5 \times 10^6}{2} = 41.25 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

Von Mises-Hencky-ren teorema aplikatuz:

$$\sigma_{M-H} = \sqrt{\frac{(\sigma_1 - \sigma_3)^2 + (\sigma_2 - \sigma_3)^2 + (\sigma_1 - \sigma_2)^2}{2}}$$

$$\sigma_{M-H} = \sqrt{\frac{(165 \times 10^6 - (-35 \times 10^6))^2 + (82.5 \times 10^6 - (-35 \times 10^6))^2 + (165 \times 10^6 - 82.5 \times 10^6)^2}{2}}$$


$$\sigma_{M-H} = 174 \times 10^6 \text{ N/m}^2$$

$$\sigma_{M-H} = \sigma_{\text{flu}} / \text{C.S.} \rightarrow \text{C.S.} = \sigma_{\text{flu}} / \sigma_{M-H} = 7300 \times 9.81 \times 10^4 / 174 \times 10^6 = 4.11$$

Irten den segurtasun koefizientea hasieratik erabilitakoa baino handiagoa denez, (4.11 > 4), kirtenaren hormarako kalkulatoriko lodiera onargarria izango da.

Jarraian kirtenaren goialdeko euskarria aztertuko da. Bertan, pistoiaren kokapena eta dimentsionaketa kontutan izango da kirtenaren gune honetan, eta sei torlojuz lotuta egongo da pistoia kirtenera.

Pistoiaren kanpo diametroa 145 mm-koa izango da eta barnekoa 85mm-koa. Agertuko diren tentsioak konpresiozkoak izango direnez (pistoiak kirtenari egingo dion tentsioa) kalkulatu beharko dira. Pistoiak 350 bar-eko presioan egongo denez, goialdean jasango dituen konpresio tentsioak de 350 kg/cm²-ak izango dira. Honela, goialdean agertuko diren tentsio axialak hurrengoak izango dira:



3.3 Irudia


$$F = P \times A = 350 \times \frac{\pi \times (14.5^2 - 8.5^2)}{4} = 37934.73 \text{ kg}$$

$$A' = \pi \times (14.5^2 - 13.2^2) / 4 = 28.28 \text{ cm}^2$$

$$\sigma_{\text{konpresioa}} = F / A' = 37934 / 28.28 = 1341.4 \text{ kg/cm}^2$$

Konpresio tentsioa fluentziatzeko tentsioa baino txikiagoa denez (7300 kg/cm²), ez da apurketa arriskurik agertuko.

Kirtenaren goialdeko euskarria kalkulaturik, behekoaren kalkulua egingo da jarraian. Gune honetan, soldaturik dagoen tapa baten bitartez itxiko da kirtena eta bere diseinuagatik tentsio axial eta ebakitzailak sortuko dira. Behin gehienezko tentsioak kalkulaturik "Mises-Hencky"-ren teorema aplikatuko da:



3.4 Irudia

Tentsio ebakitzailen:

$$\tau = \frac{F}{A} \left(\frac{kg}{cm^2} \right) \quad ; \quad A = h \times \pi \times d \left(cm^2 \right) \quad ; \quad F = P \times A' \left(kg \right) \quad ; \quad A' = \frac{\pi \times d^2}{4} \left(cm^2 \right)$$

Non:

A' = Presioan dagoen azalera cm^2 -tan.

d = Kirtenaren barne diametroa cm -tan = 13.2 cm .

P = Lan presioa = 350 bar.

F = Indar ebakitzaila kg -tan.

A = Tentsio ebakitzaila menpean dagoen azalera cm^2 -tan.

h = Tentsio ebakitzailen menpean dagoen azaleraren lodiera cm -tan = 2.8 cm .

$$A' = \frac{\pi \times d^2}{4} = \frac{\pi \times 13.2^2}{4} = 136.8 cm^2$$

$$F = P \times A' = 350 \times 136.8 = 47896.72 kg$$

$$A = h \times \pi \times d = 2.8 \times \pi \times 13.2 = 116.13 cm^2$$

$$\tau = \frac{F}{A} = \frac{47896.72}{116.13} = 412.5 kg/cm^2$$

Tentsio axialen kalkuluak:

$$t_{\text{trakzio}} = F / A \left(kg/cm^2 \right) \quad ; \quad A = \frac{\pi \times (D^2 - d^2)}{4} \left(cm^2 \right)$$

Non:

σ_{trakzio} = trakziozko tentsioa kg/cm^2 -tan.

F = Indarra trakzioan kg -tan

A = Trakzioan dagoen azalera cm^2 -tan

D = Kirtenaren diametroa cm -tan = 16 cm .

d = Kirtenaren barne diametroa cm = 13.2 cm .

$$A = \frac{\pi \times (16^2 - 13.2^2)}{4} = 64.2 cm^2$$

$$t_{\text{trakzio}} = 47896.72 / 64.2 = 746.05 \text{ (kg/cm}^2\text{)}$$

Kirtenaren behealdeko barnealdean puntu bat hartzen bada, bi tentsio mota aurkituko ditugu, ebakitzaileak eta axialak. Egoera hau aztertzeko Gere, J eta Timoshenko, S-ren "Mecánica de materiales" liburua erabiliko da gidatzeko. Honekin Mohr-en zirkuluak erabili beharko dira tentsio maximoak lortzeko:

$$\sigma_{1,2} = \frac{\sigma_x + \sigma_y}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{\sigma_x - \sigma_y}{2}\right)^2 + \tau_{xy}^2} = \frac{0 + 746.05}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{0 - 746.05}{2}\right)^2 + 412.5^2}$$

$$\sigma_1 = 1037.6 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_2 = -291.54 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_3 = 0 \text{ kg/cm}^2$$

$$\tau_{\text{max}} = \frac{\sigma_1 - \sigma_2}{2} = \frac{1037.6 - (-291.54)}{2} = 664.57 \text{ kg/cm}^2$$

Azkenik Von Mises-Hencky-ren teorema erabiliko da tentsioak aplikatzerakoan apurketarik ez dela egongo konprobatzeko.

$$\sigma_{M-H} = \sqrt{\frac{(\sigma_1 - \sigma_3)^2 + (\sigma_2 - \sigma_3)^2 + (\sigma_1 - \sigma_2)^2}{2}} = \sigma' = 855.6 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma' = \sigma_{fl} / C.S, \rightarrow C.S. = \sigma_{fl} / \sigma' = 7300 / 855.6 = 8.5$$

Lortutako seguritate koefizientearekin ikus dezakegu kirtenaren zonaldean ez dela erresistentzi arazorik agertuko ezta apurtzerik egongo.

Kirtenaren kalkuluekin amaitzeko, gilbordurarik ez duela jasango egiaztatu beharko da. Gilbordura, elementu baten konpresioko indarrak daudenean agertzen den fenomeno da eta agertzekotan elementua apurtu eta kalte larriak ekar ditzake. Fenomeno hau gure kirtenean ekiditeko luzera maximo bat eduki behar du, zein Gere, J eta Timoshenko, S "Mecánica de materiales" liburuan agertzen diren pausuak jarraituz lortuko den:

(Euler-en karga kritikoaren formula)

$$F = \frac{E \times I \times \pi^2}{L_p^2} \quad ; \quad L_p = \beta \times l$$

β = Kirtenaren finkapenaren arabera koefizientea, kasu honetan $\beta=1/2$ (2 muturrak landatuta).

$$l = \sqrt{\frac{4 \times \pi^2 \times I \times E}{F}} (cm) \quad ; \quad F = k_s \times F_{real}$$

Non:

l = Luzera maximoa gilbordura ez agertzeko cm-tan.

I = Kirtenaren zeharkako inertzi momentuaren azalera cm^4 -tan.

E = Materialaren elastikotasun kg/cm^2 -tan = 2.1×10^5 .

F = Indar teoriko maximoa.

k_s = Lan presioaren arabera koefizientea, kasu honetan 3.5 (250-350 bar balio bitartekoak).

$F_{erreala}$ = Benetako indar maximoa kg -tan = 110000 kg .

$$F = k_s \times F_{erreala} = 3.5 \times 110000 = 385000 \text{ kg}$$

$$I = \frac{\pi \times (D^4 - d^4)}{64} = \frac{\pi \times (16^4 - 13.2^4)}{64} = 1726.7 cm^4$$

$$l = \sqrt{\frac{4 \times \pi^2 \times I \times E}{F}} (cm) \rightarrow l = 192.82 \text{ cm} = 1930 \text{ mm}$$


Kalkuluetan ikus daitekeen moduan, gilbordura luzera kirtenarena baino handiagoa da, honek ezan nahi du ez duela gilbordurarik jasango eta aukeratutako luzera onargarria dela.

3.1.2.1.3 Pistoiaaren kalkulua

Pistoia, kirtenaren goialdean kokatuta joango da, honek dituen irekiduren bidez torloju batzuekin lotuta. Halaber, pistoiak zulo batzuk edukiko ditu olioaren kirtenaren barnealdera igarotzeko.

Pistoiaaren dimentsioak zeintzuk diren jakiteko, konpresioan egongo diren tentsio ebakitzaila eta axialak kalkulatu behar dira. Ondoren Von Mises- Hencky-ren teorema aplikatuko da segurtasun koefizientea aplikatzeko. Pieza hau 2 zulo bertikal eta 6 zulo hariztatu edukiko dituenez, gutxieneko segurtasun koefizientea 4 izango da.

Pistoiaren goialdean tentsio axial bat agertuko da olioak egiten duen presioa eraginda, tentsio hau 350 bar edo kg/cm-troko balioa izango du. Beste aldetik, behealdeko zonaldean, kirtena bermatuko den lekuan, 1341.4 kg/cm-ko konpresiozko tentsioak agertuko dira. Beraz, beheko zonaldea aztertuko da tentsio gehien agertuko den zonaldea baita.



3.5 Irudia

Tentsio ebakitzailen kalkuluak:

$$\tau = \frac{F}{A} \left(\frac{\text{kg}}{\text{cm}^2} \right) \quad ; \quad A = h \times \pi \times d \left(\text{cm}^2 \right)$$

Non:

τ = Tentsio ebakitzaila kg/cm²-tan.

F = Pistoiaren aplikatuko den indar ebakitzaila kg-tan = 37934.73 kg (kirtenaren goiko oinarria kalkulatzean lorturiko indarra)

A = Tentsio ebakitzaila aplikatuta egongo diren azalera cm²-tan.

h = Pistoiaren altuera cm-tan = 8.5 cm.

d = Tentsio ebakitzaila egongo diren azalera cm-tan = 14.5 cm.

Formulak aplikatuz:

$$A = h \times \pi \times d = 8.5 \times \pi \times 14.5 = 387.2 \text{ cm}^2.$$

$$\tau = \frac{F}{A} = \frac{37934.73}{387.2} = 97.97 \text{ kg/cm}^2$$

Barneko edozein puntu aukeratzeko bada, tentsio ebakitzaila eta axialak aurkituko dira, horregatik tentsio maximo eta minimoak ateratzeko Mohr-en zirkulua aplikatu behar aurretik egin den bezala.

$$\sigma_{1,2} = \frac{\sigma_x + \sigma_y}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{\sigma_x - \sigma_y}{2} \right)^2 + \tau_{xy}^2} = \frac{-1341.4 + 0}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{-1341.4 - 0}{2} \right)^2 + 97.97^2}$$

$$\sigma_1 = 6.2 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_2 = -1347.6 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_3 = 0 \text{ kg/cm}^2$$

$$\tau_{\max} = \frac{\sigma_1 - \sigma_2}{2} = \frac{6.2 - (-1347.6)}{2} = 676.9 \text{ kg/cm}^2$$

Azkenik, piezak tentsioak jasango dituen ahal ez jakiteko Von Mises-Hencky-ren teorema erabiliko da.

$$\sigma_{M-H} = \sqrt{\frac{(\sigma_1 - \sigma_3)^2 + (\sigma_2 - \sigma_3)^2 + (\sigma_1 - \sigma_2)^2}{2}} = \sigma' = 955 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma' = \sigma_{fl} / \text{C.S.} \rightarrow \text{C.S.} = \sigma_{fl} / \sigma' = 7300 / 955 = 7.6$$

Lortutako segurtasun koefizientea piezak apurketa arriskurik ez daukala adierazten du. Aipatu beharra dago nahiz eta segurtasun koefiziente altua lortu ez dela errealia izango, kalkuluetan pistoiak dituen zuloak ez direlako kontutan hartu, beraz segurtasun koefiziente errealia txikiagoa izango da.

Pistoa kirtenarekin lotzen dituzten sei torlojuen diametroa lortzeko lehenbizi torlojuetan agertzen diren tentsioak aztertu behar dira eta ondoren hauen diametroa aterako da.

$$\tau = \frac{F}{A} \quad ; \quad d = \sqrt{\frac{4 \times A}{n \times \pi}}$$

Non:

$$F = \text{Torlojuei aplikaturiko indarra kg-tan} = 37934.73 \text{ kg.}$$

$$\tau = \text{Torlojuen tentsio ebakitzaila kg/mm}^2\text{-tan} = 32 \text{ kg/mm}^2.$$

$$n = \text{Torloju kopurua} = 6$$

$$A = \frac{F}{\tau} = \frac{37934.73}{32} = 1185.46 \text{ mm}^2$$

$$d = \sqrt{\frac{4 \times 1185.46}{6 \times \pi}} = 15.86 \text{ mm}$$

Edozein arazo ekiditeko aukeratuko diren torlojuan 24 metrikakoak izango dira (M24).

3.1.2.1.4 Kirtenaren taparen kalkulua

Ixte tapa kirtenaren behealdean kokatuta egongo da. Tapa eta kirtena soldatuta egongo dira beraien artea. Taparen azken zatia hariztatuta egongo da zilindroa puntzoiaren gidariarekin lotu ahal izateko.

Taparen dimentsionaketarako kirtenaren dimentsioak kontutan eduki behar dira, gero ixte taparen puntu baten bere tentsio maximoak kalkulatu dira eta ondoren Von Mises-Hencky aplikatu da.

- Tentsio ebakitzailen kalkulua:

$$\tau = \frac{F}{A'} \quad ; \quad A' = h \times \pi \times d' \quad ; \quad F = P \times A \quad ; \quad A = \frac{\pi \times d^2}{4}$$

Non:

τ = Tentsio ebakitzaila kg/cm²-tan.

F = Taparen gainean ezartzen den indarra kg-tan.

A' = Indar ebakitzailak aplikatzen diren azalera cm²-tan.

A = Presiopean dagoen azalera cm²-tan.

d = Presiopean dagoen azaleraren diametroa cm-tan = 13.2 cm.

d' = Tentsio ebakitzailak aplikatzen diren azaleraren diametroa cm-tan = 10 cm.

P = Lan presioa bar-etan = 350 bar.

h = Tentsio ebakitzailen pean dagoen azaleraren lodiera cm-tan = 2.8 cm.

Aipaturiko formulak aplikatuz:

$$A = \frac{\pi \times d^2}{4} = \frac{\pi \times 13.2^2}{4} = 136.85 \text{ cm}^2$$

$$F = P \times A = 350 \times 136.85 = 47897.5 \text{ kg}$$

$$A' = h \times \pi \times d' = 2.8 \times \pi \times 10 = 87.96 \text{ cm}^2$$

$$\tau = \frac{F}{A'} = \frac{47897.5}{87.96} = 544 \text{ kg/cm}^2$$

- Tentsioen kalkuluak konpresioan:

Xafla baten tolestean puntzoiak konpresiozko tentsioak eragingo ditu xaflan eta tentsio hauek kalkulatu behar dira.

$$\sigma_{\text{konpresio}} = F / A \quad ; \quad A = \frac{\pi \times d^2}{4}$$

Non:

$\sigma_{\text{konpresio}}$ = konpresio tentsio axiala kg/cm²-kg-tan.

F = Konpresio indarra kg-tan = 110000 kg.

A = konpresioan egongo den azalera cm²-tan.

d = konpresioan egongo den azaleraren diametroa cm-tan = 10 cm.

$$A = \frac{\pi \times d^2}{4} = \frac{\pi \times 10^2}{4} = 78.54 \text{ cm}^2$$

$$\sigma_{\text{konpresio}} = 110000 / 78.54 = 1400.6 \text{ kg/cm}^2 \text{ (konpresioa)} = -1400.6 \text{ kg/cm}^2$$

Barneko edozein puntu aukeratzen bada, tentsio ebakitzaila eta axialak aurkituko dira, horregatik tentsio maximo eta minimoak ateratzeko Mohr-en zirkulua aplikatu behar aurretik egin den bezala:

$$\sigma_{1,2} = \frac{\sigma_x + \sigma_y}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{\sigma_x - \sigma_y}{2}\right)^2 + \tau_{xy}^2} = \frac{-1400.6 + 0}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{-1400.6 - 0}{2}\right)^2 + 544^2}$$

$$\sigma_1 = 186.47 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_2 = -1572.9 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_3 = 0 \text{ kg/cm}^2$$

Pieza ez dela apurtuko egiaztatzeko Von Mises-Hencky-ren tentsioa kalkulatu da:

$$\sigma_{M-H} = \sqrt{\frac{(\sigma_1 - \sigma_3)^2 + (\sigma_2 - \sigma_3)^2 + (\sigma_1 - \sigma_2)^2}{2}} = \sigma' = 1673.94 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma' = \sigma_{fl} / \text{C.S.} \rightarrow \text{C.S.} = \sigma_{fl} / \sigma' = 7300 / 1673.94 = 4.4$$

Nahiz eta seguritate koefizientea onargarria izan, taparen lodiera egiaztatu behar da. Honetarako Rifa Molist, J-en "Cilindros hidráulicos. 1-Física" liburua gida moduan erabiliko da.

$$e = 0.45 \times d \times \sqrt{\frac{P}{\sigma_{onar}}} \text{ (cm)}$$

Eta soldatutako tapentzako:

$$\sigma_{onar} = \sigma_{fl} / 8 \text{ (kg/cm}^2\text{)}$$

Non:

e = Taparen lodiera minimoa cm-tan

d = Taparen diametroa cm-tan= 13.2 cm.

P = Lan presioa bar-etan = 350 bar.

σ_{onar} = Tentsio onargarri maximoa soldatutako tapentzako kg/cm²-tan.

σ_{flu} = Materialaren fluentzia tentsioa kg/cm²-tan= 7300 kg/cm².

$$\sigma_{onar} = \sigma_{flu} / 8 = 7300 / 8 = 912.5 \text{ kg/cm}^2$$

$$e = 0.45 \times 13.2 \times \sqrt{\frac{350}{912.5}} = 3.67 \text{ cm} = 36.7 \text{ mm}$$

Tapa dimentsionatzerako orduan hartutako lodiera 56 mm-takoa (2.8 cm + 2.8 cm) izan da, beraz kalkuluak eskatzen duena baino gehiago denez aguantatuko du.

